

Euskera planak eta aldizkariak

Arratiako 'Begitu' aldizkaria martxan ipinteko sortu zan kultur alkarteko idazkari nazenetik ez dakit gauzak garbiago ikusten dodazen, baina saltsan egoteak asko esan gura dau.

Igor Estankona Bilbao |

Begitu aldizkariko zenbaki bat baino ez dogu argitaratu eta epe honetan inoz baino gehiago ikasi dot tradizinoz euskalduntzat daukaguzan eremuetako arazoataz. Titulu generikoa ipini dotzet artikuluari, izin be, zabala dalako asuntoa. Esango dodazenak gai konplikatu baten ganeko pintzelada labur batzuk baino ez dira, eta holan hartu behar leukez irakurleak.

Ez nauke aldizkariko hurrengo zenbakiko ezer aurreratu gura, baia Igorreko euskera planak zeresana emongo dau, bai *Begitun* eta bai kalean.

Datu tristeak urten dabe, antza, Urtzi Barrenetxea koordinadore daukon plan horren oinarri izingo dan lehenengo azterketa soziologikotik. Euskeraren erabilera motelduz doala jakiteko nahikoa da belarria ipintea, baia datuak hotzak dira, eta hoztu egiten daurie animoa bera be. Hiru-lau gauza argituteko eta etorkizunari beste modu batera ekiteko balioko dabelakoan gagoz. Idea bi behintzat atara behako geunkez. Batetik, inor ez dagoala salbu. Eta bestetik, alkarlan barik ez goazela inora. Ederto daki hori Ganoraz arratiako euskera taldeak, hainbeste urte baso-garbitan ibili dana ezelango erramienta barik. Jenteak jakin badaki talde horrengandik jaso dauela aldizkariak eta Arratiako euskalgintzak indarrik gehiena. Eta jenteak jakin badaki talde horretako kideak ibili direala ekimen asko aurrera ataraten, taldearen izena handituteko barik –inoz ez daurie burua agertuteko egin- eskualdeko hizkuntzaren osasuna berpiztuteko.

Inon ez gagoz salbu. Hori egia da, eta baita buelta bako zeozer be. Arratiarrok eskubidea daukogu pasetan dabilenen ganean gure susmoak eta gure errudunak topetako,

OKERRAK ZUZENDUZ

Bai...bai

OKER

- * Bai futboleko zein pelotan oso ondo jokatzen dau.
- * Bai beharrean zein lagunartean, ganorabakoa da.

ARTEZ

- Bai futboleko bai pelotan oso ondo jokatzen dau.
- Beharrean zein lagunartean, ganorabakoa da.

baia ez da horretarako momentua. Materialisten antzera pentsetan badogu, irrazionala izango da behar bada, eta politikoki inokorrekoa, baia egie da bizitzako hainbat aspektu —Marxen ustez danak— ekonomiak mogiduten dituala. Zonalde baten garapen ekonomikoan edo urbanistikoan hartzean dan norabideak gauza asko baldintzatuten dauz, zertan ukatu. Txorierri errepideak zeharkatzen dau. Ze herri geratzen da errepide horretatik kanpo? Larrabetzu. Zein da hango herririk euskaldunena? Larrabetzu. Arratia errepide batek gurutzatzen dau. Zeintzuk dira Arratiako herririk euskaldunenak? Harengandik aparte dagozanak.

Argumentua errezegia da, badakit. Lemoak eta Igorrek hartu dabez barruko zein kanpoko biztanleak, eta beste herriak ez dira hainbeste hazi. Baina 60ko hamarkadan be ez gagoz hain emaitza txarrak atarateko hizkuntzari jagokonean. Suspenditu egin dogu, azterketa ez egitearren. Eta hori suspendituteko modurik larriena da.


Joan Mari Irigoienek *Babilonian* ikasi gendun trena pasetea ez dala arazoa, ezpada trena norbere alde erabilten jakitea. Orduan, non egon gara gu, bitartean? Euskerre larriago ikusi daben beste leku batzutan espabilatu dira komunikabideak, planak eta eretxi kritiko sendo bat aldtzetan. Gu berandu gatoz eta aukera historiko bat galtzeako

puntu gagoz, datorren jenteari eta bertakoari ez badeutsagu erakusten hemen badagoala hizkuntza 'ofizial' bat, ez legeak edo inork inposatua, errealidadeak eta eguneroko bizitza atseginagoa eukitzeko moduak baino. Eta danon erantzunkizuna da hori. Apurka-apurka halako konkista txiki batzuk egin beharrean gagoz, bizitza sozialean hainbeste eta hainbeste arlotan egiten doguzan «kontratuak» —Kant erabiltearren— hizkuntzaren arloan be lortzeako. Gure aniztasunaren gurdia euskerea izan daiten.

Kontratu horrek gero eta onarpen osoa euki behar leuke enpresetan, udaletxeetan, kulturetan, tabernetan eta Gorbeiaiko kulturetan. Betidanik arlo horretan salbu sentitu danak —eta Arratian hala sentitu gara— laster ahiztuten dauelako euskerea leku guztietan erabili behar dala. Honeitan lekuetan normala izaten da dana euskeraz egin eta zenbakiak erderaz esate hori, edo papalak papeleratik erderaz idatzite urtetan dauela pentsete hori, batez be ofiziala bada. Eta lanbide heziketa euskeraz baia erderaz emote hori. Eta erderara pega barik pasete hori, Portugaleten baino errezago —han lau diralako, baina zelango lau!—.

Ez dakit azaltzea lortu dodan. Ez nabil inori lezinorik emoten. Sarri askotan danori pasetan jakuna ordenetan eta analizetan baino ez nabil, denporaz gabizela esateko, baina ez astitsu. *Begituk* hogeta hamairu pertsonako kultur taldea dauko ostean, tendentzia, eda eta zeregin desbardinatuko hogeta hamairu pertsona. Elkarlanaren adibidetzat hartu geinke, bere apaltasunean. Sinatu behar dogun kontratuak jente askoz gehau behar dau, eta askotan abestruzen antzera hare artean ostontan diren erakundeana. Baia hori gure zeregina da, baita be. Behetik gorako demokrazian sinistan badogu behintzat.

JESUS MARI ARRUABARRENA ARGAZKILARIA



«Baserriko jenteak berbaz seduzitzen dau»

Izaskun Basterretxea |

Azken belaunaldia liburua egin dau Jesus Mari Arruabarrena, eta orain hiru bat aste kaleratu eban, Aldundiaren laguntasunagaz. Lehenako bizimoduaren ganeakoa da; eta horretarako, Euskal Herriko hainbat herritan egon da, batez be Bizkaian, nekazal giroko jenteagaz. Izatez argazkilaria da, baina testua be berak idatzi dau.

■ Zer erakutsi gura dozu 'Azken belaunaldia'-n?

Baserri inguruko beharrak, herri medikuntzea, erlijioa, posturen mundua, ohiturak... Lehenako bizimodua.

■ Zelako ondorioa atara dozu liburua egindakoan?

Kultura bat desagertzeko moduan dagoela, ohitura mordo bat galdu dala, baloreak be aldatu egin dirala, apur bat gizartean uniformatzeko joerea dagoela. Hemengo jenteak munduko beste leku batzuetako en gero eta antz handiagoa dauka.

■ Eta bizkaierearen ganean ondorioak atara dozu?

Nekazal giroko jenteak itzeleko ahalmena dauka berbaz seduzitzeko. Hizkuntza aberatsa daukie, eta euren arloko gauzak konteteko berbakerea trinkoa da, eta bizitzako kontuak konteteko be bai. Jakitunak dira.

■ Beste libururik badaukazu esku artean?

Bizkaiko nekazal giroko beste kapitulu bat be nahiko aurreratuta daukat: fotografiak eta alkarrizketak. Gauza ikaragarriak lortu dodaz: oineztu batek jo eban nire izekoaren testimonioa, lehena errentea zelan egiten eban be kontau deust andra batek, adurra jausteko moduan gainera... Materiala bai, kontua argitaratzea izaten da.

IRAKURBIDEAK

Arduraduna ■ Alvaro Rabelli

Sorgin-liburua

Bein, "Irakorta" basetxeko mutillari, basotik etxerantz etorrela, bide-ertzean lamiña bat agertu yakon. Eta lamiña arek, mutillari abegi ona eginda, iribarrez esan eutsan:

- Morrosko, Irakorta basetxeko semea al zara?
- Bai, angoa-edo naz – erantzun eutsan mutillak – antxe jaiotakoa nazala diñoe-ta... Zegaitik itauntzen daustazu?
- Zure aitaren seme beti aspaldian bezuza (erregalu) bat egin guraz nagoalako.
- Bezuza egin guraz?
- Bai; ez dozu nai, ala?
- Ona izan ezkerro, artu be...

Orduan, lamiñeak, eskumako eskua bularreraturik, biotzaren ganetik azal gorridun liburu dotore bat atara eban; eta bezuzatzat emoten eutsala-ta, mutillari eskiñi eutsan. Eta mutillak, polit eta eder eretxita, pozik artu eutsan. "Auxe gauza polita, auxe bezuza

ederra!", iñoan.

Irakurteko zabaldu ebanean, baiña, geldota geratu zan: liburuaren orrietan itsu-larrosa pilloak aurkitu ebazan. Gauzearen bakana!- iñoan -. Liburu onek itsu-larrosak daukaz? Larrosatxo oneik, zer dala-ta? Onez ala txarrez imiñiak ete-dira? Ene, olakorik! Loratxo onetaz esakun berezia ba-da, ba...

Itsu-larrosa larrosa,
ez zara eder, larrosa;
txikia dozu lorea,
ta arantza zorrotza

Irakorta-ko mutil gaztea, ori ulertu guraz, itun eta pentsakor jarri zan. Baiña lamiñeak mutillari, ezetara be astirik izan ez egian, begirakune zorrotz bat eginda, ben-ben esan eutsan:

- Tirozu, tirozu; buru-auste gehiago bagarik, ekazu liburu ori: letra dotorez ederto

apainduta biurtuko dautsut eta...

Mutillak, liburua aiko-maiko bagarik emon eutan; eta lamiñeak, bereala eskubitorretik arantza zorrotz bat az odola atara, liburuaren orri zurietan odolez letra bakan batzuk egin ebazan. Gero, idatzi-ostean, barriri be mutillaren eskuetan imiñi eban; eta etxeraiño ez egiala zabaldu esan eutsan, etxeko leiorik txikienean gau oro illargitan irakurri egiala erreguturik.

Ganeko egunetan gixagaiso andiak, lamiñearen burubidea aintzat artuta, iñon diran gaiztakeriak egiten ebazan. Ori zala-ta, auzokoen agogozagarri biurtu zan. Leen ain ona izan zan gaztea arenbestean gaiztotzea, ezin ulertu izan eben. (...)

'Ipuiñak' liburutik jasoa.

Egilea. Errose Bustintza 'Mañariko'

Argitaletxea: Gero